

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**318/2025 Foru Agindua, uztailaren 7koa. Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritzako Informatika Zerbitzuaren buruaren lanpostua (kodea: 1700.001) berariazko lehiaketa bidez hornitzeko deialdiaren ebazpena**

Abenduaren 26ko 698/2024 Foru Aginduz (urtarrilaren 3eko ALHAOko 1. zenbakian argitaratua), deialdia egin zen Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritzako Informatika Zerbitzuaren buruaren lanpostua (kodea: 1700.001) berariazko lehiaketa bidez hornitzeko.

Deialdiaren oinarrien arabera, balorazio organo teknikoak lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuari helarazi dio 2025eko uztailaren 7ko akta, non proposatzen baitu Juan Pablo Martínez Casado izendatzea lanpostu hori betetzeko.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta Foru Gobernuaren ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zen. Horrez gain, Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorritik,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Juan Pablo Martínez Casado behin betiko atxikitzea Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritzako Informatika Zerbitzuaren buruaren lanpostura (kodea: 1700.001), hango eginkizunak betetzeko.

Bigarrena. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 98.6 artikularekin bat etorritik, lehiaketaren bidez postua lortzen duten funtzionarioek ezingo dute hurrengo bi urteetan deitutako deialdietan parte hartu. Nolanahi ere, denbora-muga hori ez da aplikatuko funtzionarioek lanposturako adskripzioa galduz gero lanpostutik mugiarazi dituztelako edo lanpostua ezabatu delako.

Hirugarrena. Jatorrizko lanpostua 2025eko uztailaren 16an utziko du.

Laugarrena. 2025eko uztailaren 17an jabetuko da esleitutako lanpostuaz.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakunde berean; hori guztia, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoarekin, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 7a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR